

Gure proiektua kanal bat sortzea da, bertan ur-kirol desberdinak egin ahal izateko. Gainera, kanal horren ondoko larre bat erabiliko dugu mahai batzuk jartzeko, bezeroek bertan bazkal dezaten eta egun atsegin bat izan dezaten.

Kanalean egingo diren kirol nagusiak hiru izango dira: hasteko, piraguetan jeitsierak egiteko aukera egongo da. Hau adituek edo esperientzia duten pertsonak egin beharko dute, arrisku puntu bat duelako eta teknika minimo bat behar delako. Bigarren kirola rafting-a izango da. Hau, lantxa batzuetan egingo da taldeka, eta beti monitore bat egongo da kontrolatzeko. Hau edozeinek egin ahal izango du eta taldean ondo pasatzeko aukera ona da. Azkenik, hidrospeed izeneko kirola egiteko aukera ere egongo da. Hau kirol berria da, eta kanala tabla baten gainean etzanda jarrita jeistea da. Honetarako piraguismoan bezala teknika minimo bat behar da, eta adituek egingo dute.

Aurretik aipatu dudana bezala, kirolez aparte bazkaltzeko tokia ere egongo da. Kanalaren inguruan dauden zuhaitzak moztuko ditugu, larre antzeko bat egin ahal izateko. Zuhaitz horiek moztean lortu dugun egurrarekin mahaiak egingo ditugu, eta horrela diru asko aurrezteaz gain, kutsatzea ekidingo dugu.